

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua martxan jartzeko, hainbat ideia izan ditugu gure eraikineko lokalak alokatzeko: kaleetan, egunkarietan, albistegietan, irratan eta telebistan iragarkiak jarriko ditugu. Adibidez: El Correion, Deian etab ,egunkarietan; Telebistako arlotik, Durangaldeko jendeak jakin dezala, eraikinaren publizitatea jarriko dugula. TeleBilbaon ere ipintzea pentsatu dugu, aurrekontuan diru asko edukitzen badugu, Eitb-ek gure enpresa iragartzea pentsatu dugu; irratan, Durangoko Irratian, iragarkia ipiniko dugu eta Euskadi Irratian; aldizkarietan, Durangon publizitatea ipiniko dugu bai kalean, kartel handiekin bai auzoetan, bakoitzaren etxeetako buzoietan, guztiek jakitzeko zertaz doan gure enpresa. Horretarako, gu izango gara kartelak ipintzen joango gara pertsonak. Gure familiako batzuei ere eskatuko diegu laguntza, beraiek ere Durangon eta beste herri batzuetan iragarkiak jartzeko herritik zehar edo buzoietan. Horrela, uste dugu, jende guztia jabetuko dela.



Horretaz aparte, adingabeak ere enteratu behar dira horrelako eraikin bat zabaldu behar dugula, gure eraikinera etortzeko lokalei buruz galdezka, prezioa, finantza etab. Adingabeak ez badira gure enpresara galdezka etortzen, gure enpresa ez da izango produktiboa. Gauzarik garrantzitsuenetarako bat irekitzeko baimena da, beharrezkoa da, horregatik udaletxeari baimena eskatu behar izango diogu ireki ahal izateko.



Gure lokalak alokatzeko arazoak izaten baditugu, eskaria eta eskaintza legea erabiliko dugu, hau da, eskari handia badago, prezioa igoko dugu, baina eskari gutxi badago, prezioak jaitsiko ditugu. Horrela, uste dugu ez ditugula izango arazoak adingabeekin.

Interneten, webgune bat irekitzea ere pentsatu dugu, gure enpresa aurrera joateko, horrela adingabeak webgunetik ere bidali ahal digute beraien galdera. Bertan, lokalei buruzko informazioa eskainiko dugu eta lokalak Internetetik alokatzeko aukera emango diegu ere. Naiara, enpresako jabeetariko bat, sare orria egiteko arduraduna izango da, berak ondo kontrolatzen ditu webguneak eta beste webgune batzuk egin ditu aurretik eta badaki zelan erakarri bezeroei.

